


## UDAL BATZORDEEN BERRI

LAN-TALDEA	AZTERGAIK	GARATUTAKOA	HURRENGORAKO
<b>Ekimen sozio-kulturalak (2020/09/30)</b>  Hurrengo saioa: (2020/10/21)	Udazkeneko auzolana	Urriaren 24an egingo den auzolanaren inguruko lanak zerrendatzen hasi gara. 1.- Alzigarragako iturria txukundu 2.- Itsusturri garbitu (hustu) eta desbrozatu. Anfibioak babesteko neurriak hartu. 3.- Alegiako eta Itsasoko lorategiak txukundu 4.- Alegiko bide berde inguruan alanbre-sare zaharrak bildu 5.- Oinezko ibilbideak desbrozatu, eta pasabideak egin 6.- Su egurra prestatu 7.- Seinalitika kokatu S Lorentzo bidean	Komunikazio eta Azpiegitura batzordeetan lanketarekin jarraitu

LAN-TALDEA	AZTERGAIK	GARATUTAKOA	HURRENGORAKO
<b>Komunikazioa, partaidetza eta gardentasuna (2020/10/07)</b>  Hurrengo saioa: 2020/10/28)	Herri Batzarra	Urriaren 17rako antolatu den Herri Batzarreko gai zerrenda osatu da eta jakinarazpena prestatu da. Honako hau da gai zerrenda: 1. - Itsasoren bereizketari dagokion Madrileko Auzitegi Gorenaren aurkako sententziaren ondoren jorratutakoak: - Aldundiarekin izandako bilera - Ezkioko Udalarekin hasitako bidea - Hurrengo urratsak emateko aukera ezberdinen lanketa 2.- Otsaileko batzarraz geroztik Udalak emandako pausoak - Aurrekontuak 2020: egindako moldaketak - Udaletxeko obra eta plaka fotoboltaikoak - Itsasoko udal bide publikoak arautzeko ordenantza - Diru laguntza berriak: - Leader 2020: Alegiako bulebarizazioa - Garapen jasangarria: lur sailen erosketa eta Natura Ondarearen Kontserbaziorako ekimenak 3.- Udazkeneko auzolana urriaren 24ean	Jakinarazpena banatu eta aurkezpena prestatu



	Udazkeneko auzolana	Jakinarazpena prestatu ondoren, talde bakoitzaren zereginak eta arduradunak antolatzen aritu gara. Aldez aurretik guneren batera bertaratzea ere aurreikusten da, zeregin bakoitza hobeto zehazteko.	Azpiegitura batzordean lanketarekin jarraitu
--	---------------------	--	--

LAN-TALDEA	AZTERGAIAK	GARATUTAKOA	HURRENGORAKO
<b>Azpiegitura eta ingurumena (2020/10/14)</b>  Hurrengo saioa: (2020/11/04)	Udaletxeko obra	Aurreikusitako epearen barruan doaz lanak, teilatua dagoeneko oso aurreratua dago eta abendu amaierarako espero da amaitzea. Urria bukatu aurretik plaka fotovoltaikoak jarriko dira plazara eta parke aldera jotzen duten teilatuetan. Honela udal eta ostatuko argindarrean eragin positiboa izango du eta kontuan hartu behar da, bestalde, instalazioa hein handi batean diruz lagundu dela.	Plakak jartzeko teilatuko azpiegitura nork egin behar duen argitu
	Alegiako errepidearen bulebarizazioa	Leader 2020: 2019ko proiektuaren fase bat aurkeztu d , errepideari dagokiona. Aurrekontua: 37.221€. Aldundiak obra egiteko baimena eman du eta hilabete baino lehen abiatuko dira lanak: lehenik 5 cm denean kendu eta gainean berria kokatu, errepidearen maila igo gabe. ORSA enpresari esleitu zaio. Zubian non hasi erabakitzeko dago, Gabiriako udalak esaten duenaren zain.	Gabiriako Udalarekin berriro harremanetan jarri. Aldundiko Elvira Uribesalgok Esti Igartua aparejadorearekin egingo du jarraipena
	Goimen: zuntza	Estatu mailan markatzen dira ailegatu ez diren eremuak eta Itsasori dagokionean zein diren eremu horiek galdetuz egin du Goimenek kontsulta. Zabalkunde osoaegiteko Movistar diruz lagunduta dago 2018tik 2021ra arte egiteko konpromisoarekin	